

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 56/2021 Foru Dekretua, abenduaren 28koa. Onestea alda daitezela pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan jasotzen diren lan etekinei egin beharreko atxikipenen ehunekoak

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauak konturako ordainketak arautzen ditu XII. tituluko II. kapituluan, eta zehatzago azaltzen ditu abuztuaren 1eko 40/2014 Foru Dekretuaren bidez onetsitako zerga horren erregelamenduaren VII. tituluari.

2022ko zerga aldia berehala hasiko denez, foru dekretu honen helburua da onestea lan etekinen gainean egin beharreko konturako atxikipenen taula berri bat pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan.

Araudi honek proportzionaltasun printzipioa betetzen du, eta xedapen horrekin bete nahi den beharrari erantzuteko ezinbestekoak diren arauak biltzen ditu. Ez dago xede horretarako beste neuririk, hartzaileen eskubideak gutxiago murrizten dituenik edo hartzaileei betebeharrak gutxiago jartzen dizkienik.

Ekimen honen bidez segurtasun juridikoaren printzipioa bermatzen da, eta koherentea da estatuko eta Europar Batasuneko gainerako ordenamendu juridikoarekin.

Foru dekretu hau izapidetzean gardentasun irizpideari jarraitu zaio, zeina Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129. artikulua arautzen baitu.

Arabako Foru Administrazioaren Aholku Batzordearen Arautegi Organikoak 3. artikulua hiru paragrafoan xedatutakoaren arabera, batzorde horren txostena ez da aginduzkoa.

Ikusi da Zerga Araudiko Zerbitzuak horri buruz egindako txostena.

Horregatik, lehen diputatu nagusiordeak eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak proposatuta, eta Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu eta gero, hau

XEDATZEN DUT

Artikulu bakarra. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua aldatzea

2022ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, aldatu egiten dira abuztuaren 1eko 40/2014 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduaren 84. artikulua 1. eta 4. apartatuak, eta honela idatzita geratzen dira:

“1. Atxikipenen ehunekoaren taula orokorra.

URTEKO ETEKINAK, ZENBATEKOA (€)		ONDORENGO KOPURUA						
GUTXIENEZ	GEHIENEZ	0	1	2	3	4	5	GEHIAGO
0,01	14.000,00	0	0	0	0	0	0	0
14.000,01	14.790,00	5	3	0	0	0	0	0
14.790,01	15.530,00	6	4	2	0	0	0	0
15.530,01	16.460,00	7	5	3	0	0	0	0
16.460,01	17.700,00	8	6	4	0	0	0	0
17.700,01	19.150,00	9	7	5	2	0	0	0
19.150,01	20.660,00	10	8	7	3	0	0	0
20.660,01	22.020,00	11	10	8	5	1	0	0
22.020,01	23.540,00	12	11	9	6	3	0	0
23.540,01	25.360,00	13	12	10	8	4	0	0
25.360,01	27.540,00	14	13	11	9	6	2	0
27.540,01	30.140,00	15	14	13	10	8	4	0
30.140,01	33.230,00	16	15	14	12	9	6	0
33.230,01	37.460,00	17	16	15	13	11	8	0
37.460,01	40.700,00	18	17	16	15	13	10	3
40.700,01	43.840,00	19	18	17	16	14	12	5
43.840,01	47.530,00	20	19	18	17	15	13	7
47.530,01	51.420,00	21	20	20	18	17	15	9
51.420,01	55.650,00	22	21	21	19	18	16	11
55.650,01	59.140,00	23	22	22	21	19	18	12
59.140,01	63.080,00	24	23	23	22	21	19	14
63.080,01	67.570,00	25	25	24	23	22	20	16
67.570,01	72.700,00	26	26	25	24	23	22	17
72.700,01	78.160,00	27	27	26	25	24	23	19
78.160,01	83.030,00	28	28	27	26	25	24	20
83.030,01	88.560,00	29	29	28	27	27	25	22
88.560,01	94.660,00	30	30	29	29	28	27	23
94.660,01	101.910,00	31	31	30	30	29	28	25
101.910,01	109.880,00	32	32	31	31	30	29	26
109.880,01	119.000,00	33	33	32	32	31	30	28
119.000,01	129.790,00	34	34	33	33	32	32	29
129.790,01	142.100,00	35	35	34	34	33	33	31
142.100,01	155.630,00	36	36	36	35	35	34	32
155.630,01	172.010,00	37	37	37	36	36	35	33
172.010,01	192.250,00	38	38	38	37	37	36	35
192.250,01	213.160,00	39	39	39	38	38	37	36
213.160,01	Hortik gora	40	40	40	39	39	39	37

“4. Desgaitasuna duten langile aktiboak.

Langile aktibo desgaituei artikuluko honen 1. apartatua aipatutako atxikipen ehuneko taula orokorra aplikatuko zaie. Taula orokorra aplikatuz ateratzen den atxikipen ehuneko horri eskala honetan ezarritako puntuak kenduko zaizkio, langilearen egoeraren arabera:

a) Ehuneko 33ko edo hortik gorako eta ehuneko 65etik beherako desgaitasun maila duen langile desgaitu aktiboa bada.

b) Ehuneko 33ko edo hortik gorako eta ehuneko 65etik beherako desgaitasuna duen langile desgaitu aktiboa bada eta mugikortasun murriztuko gabezia egoeran badago. Horrelakotzat hartuko da abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretuaren (ezintasun maila onartu, aitortu eta kalifikatzeko prozedura ezartzen du) II. eranskinean zehaztutako baremoaren A, B edo C ataletan jaso diren egoeraren batean badago edo aipatutako baremo horretako D, E, F, G edo H ataletan jasotako egoeretan 7 puntu edo gehiago baditu.

c) Ehuneko 65eko edo hortik gorako desgaitasun maila duen langile desgaitu aktiboa bada.

URTEKO ETEKINAREN ZENBATEKOA (€)		DESGAITASUN GRADUA	
GUTXIENEZ	GEHIENEZ	4.A. APARTATUA	4.B. APARTATUA ETA 4.C APARTATUA
0,01	23.540,00	9	12
23.540,01	30.140,00	7	12
30.140,01	43.840,00	6	10
43.840,01	51.420,00	5	10
51.420,01	72.700,00	4	8
72.700,01	109.880,00	3	6
109.880,01	172.010,00	2	5
172.010,01	Hortik gora	1	3

AZKEN XEDAPEN BAKARRA. Indarrean jartzea

Foru dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean; artikuluetan ezartzen diren ondorioak sortuko ditu.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko abenduaren 28a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Lehenengo diputatu nagusiordea eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua

ITZIAR GONZALO DE ZUAZO

Ogasun zuzendaria

MARÍA JOSÉ PEREA URTEAGA